

5.- KASUA

Juana María S.R. andreak «Banco Zaragozano, S.A.», «José G.B.» eta «Hijos de B.G., S.A.» Sozietatearen kontrako demanda aurkezten du Plasencia-ko Lehenengo Instantziazko Auzitegian. Aurretikoak hurrengo hauek dira: 1) 2013ko Urtarrilaren 27an José G.B. jaunak <<B.G., S.A.>> Sozietateak onarturiko trukerako letra bat abalatu zuen, zein ordaindu gabe suertatu baizen bere epemuga egunean, 2013ko Apirilaren 27an, zegokion protesta eraziz abalemailearen emazteak parte hartuz. 2) Trukerako letraren edukitzaileak -«Banco Zaragozanok»- demanda aurkeztu zuen, emazteari notifikatuz eta, besteak beste, baserri-etxalde bat osatzen zuten 24 zatietatik banatu gabeko zazpi zatiei buruz bahitura trabatuz. Bahitura Jabego Erregistroan Urriaren 19an ohartarazi zen. 3) Bitartean, ezkontideek ezkontza banapen prozesuan zeuden, zeinean onartze epaia 2013ko Irailaren 26an erabaki baizen, Urriaren 21ean finkotasuna lortuz. 4) Banaketaren hitzarmen erregulatzailak, besteak beste, hurrengo adierazpenak zeuzkan, hau da, ondasun higiezina -zeinen banatu gabeko zatiak bahituak izan baitziren- eta «Hijos de B.G.» Sozietatearen akzioak - ezkontideenak izan zirenak eta biak balio berekoak- senar-emazteari adjudikatu zitzaizkiola -lehenengoa emazteari eta bigarrena senarrari-.

Hitzarmen honen arabera, emazteak adierazten du ondasuna berari dagokiola ondasun pribatu gisa eta ez Bankuari, eta, gainera, ondasuna ez zegoela abalari zerion zorra erantzutera loturik.

EGINTZAK:

Juana Maria S.R andreak demanda bat aurkeztu du Plasenciako Lehenengo Instantziazko Auzitegian «Banco Zaragozano, S.A.», «José G.B.» eta «Hijos de B.G., S.A.» Sozietatearen kontra. Hau gertatzeko, Jose G.B jaunak trukerako letra bat abalatu zuen, hau epemuga egunean ez zen ordaindu, abalemailea jaunaren emaztea izanik. Banco Zaragozanok demanda aurkeztu zuen, gainera, baserri-etxalde bat osatzen zuen eremutik banatu gabeko 7 zati bahitura egoera jarri ziren. Bitartean, Jose G.B jauna eta bere emaztea banapen prozesuan zeuden eta honen erregimen erregulatzailak hainbat adierazpen zituen, bertan ondasun higiezina eta bakoitzaren adjudikazioak definitzen ziren. Honegatik, banatu gabeko zazpi zatiak emazteari dagozkio eta «Hijos de B.G.» Sozietatearen akzioak senarrari. Laburtuz, emazteak adierazten du ondasuna berea dela, ondasun pribatu gisa eta horregatik bankuak ez du inolako eskubiderik esku-hartzeko.

LEGERIA:

Kasua aztertuz, jauna erantzunkiazun mugagabeko enpresaria da, horregatik, sortu diren zor guztiak bere ondasunekin ordaindu behar ditu. Hala ere, salbuspen egoerak egon daitezke. Gure kasuan, ezkonkideek ondasunen banaketa edo banakako erregimena bezala ezagutzen den erregimena adostu zuten, hau da, ez zen nahasketarik sortu ezkonkideen artean, bakoitzak bere ondasunak dituelarik. Sortu daitekeen beste salbuspen bat, irabazkin erregimena izan ahal da. Honekinezkontideen ondasunak bienak direla esan nahi da, hala ere, pribatitasun maila bat egongo da. Jardueren ondorioz galerak izanda, kreditu modura ondasun pribatuak har daitezke.

EPAIA ETA FUNTSAK:

Ezkontideak banapen prozesuan zeudela jakinda eta ondasunen banaketa izeneko erregimena izanik, bankuak ez du eskubiderik ondasunak hartzeko (ekonomia-erregimenari dagokionez).

Honengatik, zorra «José G.B.»ren esku geratu beharko da. Honi gehituz banapen prozesuaren onarpen epaia finkaturik dagoela, eta beraz, bikotearen ondasunak guztiz banatuta daudela.

6.- KASUA

2014ko Otsailaren 10ean, banku mailegu operazioaren ondorioz, «Banca Catalana, S.A.»-ren agindura 2 milioi euro zenbateko trukerako letra bat sortu zen bere epemuga urte bereko Abuztuaren 10ean eta bere libratzailea «José Ramón A.M.» et libratu-onartzailea «Nadal M.S.» zirelarik. Epemuga eguna heltzerakoan, aipaturiko libratu-onartzaileak ez zuen trukerako letraren zenbatekoa bete, hurrengo egunean - Abuztuaren 11n- zegokion protesto akta erauziz. «Banca Catalana, S.A.» erakundeak, 2014ko Abuztuaren 31ko notari aktaren bitartez, «José Ramón A.M.»-ri trukerako letra protestatua izan zela -bere onartzaileak ordaindu ez baitzuen-jakinarazi zion.

«José Ramón A.M.» eta «Dolores Carmen O.A.» ezkontideek, zeintzuk 2006ko Abenduaren 1ean ezkondu baitziren eta zeintzuen ekonomi ezkontza erregimena irabazkin sozietatea baitzen, 2014ko Irailaren 5ean Valenciako notarioak baimenduriko eskritura publikoaren bitartez ezkontza kapitulazioak eman zituzten, zeintzuen arabera aipaturiko emate datatik beren ekonomi ezkontza erregimena erabateko ondasun banapena izango zela erabaki baitzuten, eskritura berean aurreko beraien arteko irabazkin sozietatea disolbatuz eta likidatuz. Irabazkin erregimenean bakoitzak zituen parte-harmenen ordainean, emazteari -«Dolores Carmen O.A.-ri»- etxalde bat bere barnean zegoen irabazkin ondarea osatzen zuen ondasun higiezin bakarrarekin - etxea- eta bizilekuko altzariak eta tresnak adjudikatu zitzaizkion, -adjudikazioa 2014ko Irailaren 24an bere izenean inskribatuz-; senarrari -«José Ramón A.M.-ri»-, aldiz, automobil bat eta kontu korranteetan zeuden 2.800.000 eurotako eskudirua.

2014ko Irailaren 7an, «Banca Catalana, S.A.»-ak, «José Ramón A.M.» eta bere emaztearen kontra aurkezturiko demandaren bitartez, aipaturiko trukerako letran oinarrituz, epaiketa exekutiboa eragin zuen, trukerako letraren zenbatekoa, protesto gastuak eta kostuak eskatuz, bai eta aipaturiko etxaldeari buruz bahitura trabatu ere, «Dolores Carmen O.A.» emazteari jakinaraziz eta 2014ko Azaroaren 29an Jabego Erregistroan aurrezaintzeko oharpena burutuz. Aipaturiko epaiketa exekutiboan, emandako epai finkoa betetze biderapenean zegoela, «Dolores Carmen O.A.»-k aipaturiko etxaldeari buruz «Banca Catalana, S.A.» erakunde eta bere senarraren -«José Ramón A.M.»-kontra ekintza judiziala eragin zuen. «Banca Catalana, S.A.» erakundeak, bere aldetik, senar-emazteen kontra beste ekintza judizial bat aurkeztu zuen ezkontza kapitulazioen ezeztapena eskatuz, hartzekodunen maularako eman baitzirela adieraziz.

EGINTZAK:

2014ko Otsailaren 10ean «Banca Catalana, S.A.»-k 2 milioi euroko truke letra bat sortu zuen, «José Ramón A.M.» libratzailea izanik eta «Nadal M.S.» libratu-onartzailea. Letra ordaintzeko epemuga heldu eta libratu-onartzaileak ez du hau ordaintzen, hurrengo egunean dagokio protesto akta erauziz. Urte bereko abuztuan, notario bidez, «José Ramón A.M.»-ri letra protestatua izan dela eta onartzaileak ordaindu ez duela jakinarazten zaio. Jose Ramon jauna «Dolores Carmen O.A.»-rekin ezkondata dago eta ekonomi ezkontza erregimena irabazkin sozietatetzat finkatuta dute. Notarioak, eskritura publikoaren bitartez, ekonomi ezkontza erregimena erabateko ondasun banapena egongo zela adierazten du. Honekin, irabazkin sozietatea disolbatuz eta likidatuz. Banaketa materialak sortzen dira, hauen artean, etxea eta bizilekuko altzariak eta tresnak. Banca Catalana SA-k bi ezkontideak mandatzen ditu, trukerako letraren zenbatekoa, protesto gastuak eta kostuak eskatuz eta etxaldeari buruzko bahitura burutu nahian. Epaiketa momentuan, Dolores andreak, Banca Catalana eta senarraren kontra joko du. Aderantziz, Banca Catalanak ere senar-emazteen kontra ekintza judizialak burutuz.

LEGERIA:

Kasu honetan, hasiera batean ezkontideek irabazien erregimena zeukaten, baina ondoren notario

baten aurrean hau aldatu eta ondasun banaketa erregimena ezarri zuten. Ezkonkideak ondasunen banaketa edo banakako erregimena bezala ezagutzen den erregimena adostu zuten, hau da, ez da nahasketarik sortuko ezkontideen artean, bakoitzak bere ondasunak edukiz.

EPAIA ETA FUNTSAK:

Kasu honetan, bi ekintza judizial burutzen dira. Hasteko, Dolores andereak etxealdeari buruz Banca Catalana eta senarraren kontra jotzen du. Kasu honetan, ekonomia-erregimen aldaketa demanda gauzatu baino bi egun lehenago finkatuta geratzen da, horregatik, berak ez du erantzunkizunik honen kontra eta Banca Catalanak Jose Ramoni eskatu beharko dizkio zorren erantzunkizunak, eta honek bere ondasunekin ordaindu beharko ditu (eskudirua edo autoa). Bestetik, Banca Catalanaren demanda deuseztatu beharko litzateke. Datak kontuan hartuta eta notario baten aurrean egin dagoela ikusirik honek legea errespetatu beharko du. Eskatzen duena, ezkontza kapitulazioen ezeztapena delarik, hartzekodunen estafarako eman baitzirela adieraziz susmagarria izan daiteke. Baina eskontideek legearen barruan egin dutenez dena, honek ez du inolako eskubiderik demanda jartzeko.